



LEHEN HEZKUNTZAKO 3. zikloa: IPUIN SARITUA

SARA ETA MALOKI POLOAN. Nerea Lasa Lekunberri.

Bazen behin Sara izeneko neska bat. Ile marroia zeukan eta nahiko altua zen. Hamaika urte zituen eta, bere adinerako, oso ausarta zen. Bere osaba Pedro ondoko etxean bizi zen, Lerrutz herrian. Bera oso jatorra eta eskuzabala zen.

Egun batean, Pedrori ipar polora joan behar zela esan zioten lanekoek eta Sara berarekin joatera gonbidatu zuen. Hor lagun bat egin zuen, Maloki izenekoa. Mutilak bederlatzi urte zituen, baxua eta indartsua zen. Hurrengo egunean, hartz talde bat "iglu"etara joan zen erasotzera. Hartzek makina txiki bat zuten garuna menperatzen zutena eta hartz bati lurrera erori zitzaion. Hartzak joan zirenean, aparatua aurkitu zuten baina ez zekiten zer zen.

—Zer da lurrean dagoen hori?— galdetu zuen Sarak.

—Ez dakit. Goazen begiratzera— erantzun zuen Malokik. Eta hizketan jarraitu zuten haien artean.

—Makina txiki bat da. Auskalo nondik atera den!!

—Baina zertarako ote da?

—Ez dakit. Zakarrontzira botako dugu.

Arratsalde horretan bi lagunak mendira abiatu ziren eskiatzera eta bat-batean kobazulo bat aurkitu eta bertara sartu ziren. Han ez zegoen inor baina norbait bizi zela konturatu ziren aparatua elektroniko asko zeudelako. Herriko guztiei esan zieten baina inork ez zuen sinistu. Azkenean, behin eta berriz esan eta gero, begiratzera joan eta egia zela ikusi zuten. Herriko azkarrenak hartzak menperatzeko erabiltzen zituzten aparatuek zirela konturatu ziren. Orduan jakin zuten azkenaldian hartzek zergatik erasotzen zuten.

Geroxeago, tranpa bat jartzea erabaki zuten. Ordu erdi geroago, bi gizon tranpa horretan erori ziren eta kartzelara eraman zituzten.

Han, beldurtuta zeudenez, dena kontatu zuten: errubi mehategi bat aurkitu zuten eta haientzat nahi zuten dena. Herriko eskimalak mehategira ez hurbiltzeko, hartzak erabiltzen zituzten. Animaliei buruko mina eragiten zieten aparatuez baliatzen ziren, herriko jendea beldurtzeko.

Bi gizonak urte batzuk egon behar izan zuten kartzelan. Eskimalek, Sara eta Pedroren laguntzarengatik, errubi batzuk oparitu zizkieten eta biak Lerrutzera itzuli ziren oso pozik. Hala bazan ala ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Lerrutzeko plazan.

